

ABAO
OLBE



Ikuskerak gaituzten dituzte
teatroaren baliabideak

2015
2016

ARRIAGA
Antzokia



Txanozuritu

CARLOS IMAZ

ESTRENO ABSOLUTO
ERABATEKO ESTREINALDIA

Euskarazko bertsioa
Versión en euskera


Martxoak 12 de Marzo 12:00

Martxoak 13 de Marzo 12:00 / 18:00

Produkzioa / Producción: ABAO-OLBE

Tokia / Lugar: Teatro Arriaga Antzokia

Laguntzaileak / Colaboradores



Ikusizun hauek ABAO-OLBE eta ARRIAGA ANTZOKIAREN arteko lankidetzaren emaitza dira.
Estos espectáculos son fruto del convenio de colaboración entre ABAO-OLBE y TEATRO ARRIAGA.



IPIUNA

Txanozuritxu nerabe lotsatia da ez dabil eroso institutuak, eskolaz kanpoko eskolek eta etxeko lanek eragindako bizimodu estresagarrian.

Amonaren urtebetetze egunean, erretiroa hartutako opera-abeslari eroa bera, Txanozuritxuk egoera zoroak biziko ditu, eta bidean topatuko dituen pertsonaiek bizimodua aldatuko diote. Besteak beste, Otsoarekin egingo du topo; gelakide enigmatikoa duen hori gure protagonista konbentzitzen saiatuko da berari komeni zaion bidea har dezan. Asmo onak izango ote ditu Otsoak? Aukeratuko ote du Txanozuritxuk bide egokia?

Euskarazko opera honen egundoko estreinaldia, bost musikarik eta 8 abeslarik osatua. Publikoak bertatik bertara gozatuko du ipuin klasiko honen bertsio berri-berriaz, familia osoarentzako opera bihurtuta; bertan, ez dira faltako umorea eta guztiok ezagun dugun istorioaren magia, baina oraingoan era berri eta harrigarrian kontatuta.

URTEMUGA OSPATZEKO PROIEKTUA

2015. urtean, ABAO-OLBEren programa didaktikoak 25 urte bete zituen. Urteurrenak ez du parekorik estatuko gainerako operantzokietan eta, ondorioz, Operaren Lagunen Bilboko Elkartek erabaki zuen opera original bat ekoitziz ospatzea, euskaraz, gainera.

Asmo horrekin, ABAO-OLBEk **Carlos Imaz** baritono eta konpositorearengana jo zuen, proiektuaz ardura zedin. Eraitza Perraulten “Txanogorritxu” ipuin ospetsuaren egokitzapen askea da, bost musikari eta zortzi abeslarirentzat sortua. 50 minutuko istorio harrigarria, 8 urtetik gorako publiko orokorarentzat, pertsonaiak eta agertokiak egoera garaikide eta modernoari egokituta.

IZAERA DIDAKTIKOA

Istorioaren gai nagusia pertsonen arteko inkomunikazioa da, izan lagunak, lankideak edo eskolakideak, baita ama-alabak ere; egungo jendarteak bizi dituen estresa eta presak nabarmentzen ditu.

Halaber, beste gai batzuei ere heltzen die, gizarteratzeari, “bullying” delakoari edo bizitzan ametsak eta helburuak bete nahiari, kasu.

Balitzko irakaspen ugariren bidez, ikusleak erazago uler ditzake obrako pertsonaiak, eta guztion artean sortzen dugun jendarteari buruz hausnarrarazten zaio, esaterako, balio ezari eta horren ondorioei buruz.

Baina hori guztia onberatasuna eta xalotasuna oinarri, umorea eta musika alde batera utzi gabe, horiek bihurtzen baitute ipuina aparteko esperientzia txiki zein helduentzat. Musika da, hain zuzen ere, Txanozuritxuren bidaia emozionalaren gida; izan ere, neskatoak haurrek egunerokotasunean bizi ohi dutena agertzen du: ilusioa, bilaketa pertsonala, segurtasun-gabeziak, maitasuna, amodioa, ulerkortasuna, onarpena, etab.

MUSIKAREN BIDEZKO BIDAIA EMOZIONALA

“XXI. mendeko neskati la batean ardazturiko opera berri batek kolore bakarra eduki behar du? Batik bat neskati la gainerakoek inguruan abesten duten musika ezagutzen hasten denean? Txanozuritxu, pertsonaia, bete gabeko partitura da, edozer idatz daiteke gainean: biolina jotzen eta balleta dantzatzen ikasten ari da, bere garaiko musika dantzatzen du eta etxerako lanak Broadwayko musikalen erritmoan egiten ditu; ikaskideak popak, euskal dantzek eta swingak liluratuta daude; irakasleak euritako hegalaria daraman etxe-irakasle ingelesak bezala ematen dizkio aholkuak; amona opera-abeslari ohia da, koru-eskolak ematen ditu eta arratsaldeetan ariak abesten dizkie sofako kuxinei; Ehizari poliziak halako erritmo latinoarekin jazartzen ditu lapurrak... Zatoz eta jabetu zure musika-estilo gustukoenaz. Baliteke... guztiak izatea!”.

ZENBAIT UNE ENTZUTEKO... (DEMO)



CARLOS IMAZ CUENCA

KONPOSITOREA ETA KANTA-IDAZLEA

Bilbon jaioa, goi-mailako piano, harmonia, kontrapuntu eta fuga ikasketak egin ditu, eta hainbat abesbatzatan eta bakarlari aritu izan da euskal geografia osoan zehar. Konpositore-lanagatik Bizkaiko Abesbatzen Elkartek (BAE) antolaturiko Musika erlijiosoaren konposizio lehiaketako bigarren saria jaso zuen 1995ean. Harrezkero, moldaketak eta orkestrazioa egin izan ditu hainbat kontzertutarako. 2012an, Sorozabalen ahots birako Zortzi euskal abestien pianorako egokitzapena estreinatu zuen, eta 2013an María Bayok haren Sei euskal abesti tradizioaletatik hiru estreinatu zituen. Imazen moldaketak abestu dituzte, besteak beste, Ainhoa Artetak, Carlos Alvarezek, Nancy Fabiola Herrerak, José Manuel Zapatak eta Carmen Romeuk.

BADAKIZU ISTORIA, ORAIN, BIZI EZAZU!

“Txanogorritxu ipuinaren bertsio askea egitea eskaini zidatenean, argi izan nuen nola kontatu istorioa. Komunikazio ezaren gaiak beti eman izan dit atentzioa, eta, nire ustez, ipuin honek asko du horretatik. Pertsonaien arteko harremana, zentzu horretan, bitxia, behintzat, bada. Txanogorritxuren ama zergatik ez doa alabarekin amona bisitatzeraz? Amona zergatik bizi da bakarrik baso erdian?

Bertsio honetan, Txanozuritxu irrikan dago bizitzak eskaini diezaiokeen guztia ezagutzeko, baina besteekin komunikatzeko orduan lotsatia denez, ez da ausartzen. Horregatik aldatu du gure Txanozuritxu xalo baino xaloagoa da, baina gogo izugarria dauka bizitzeko. Zein bide aukeratu? Hainbeste dira... Txanozuritxuk, amonaren etxerako bidean, pertsonaia barregarriak topatuko ditu, eta egoera komiko eta dibertigarri ugari eragingo dizkiote. Besteak beste, Aroa eta Naroa ezagutuko ditu, modarekin obsesionatutako ahizpa bi, edo Karlos, kirola etengabe praktikatzeko duen pilotaria; eta, jakina, Otsoa, gure protagonistaren bizimodua irauliko duen mutil enigmatikoa.

Eta nola ahaztu amona edo ehiztaria. Bertsio honetan, protagonismo handiagoa izango dute, eta publikoarekin elkarreaginean istorioaren baitan sartuko dute. Badakizu istorioa, orain bizi ezazu!”.

MITXEL SANTAMARINA


DRAMATURGIA ETA ESZENA-ZUZENDARITZA

Nagusiki antzezpenean jardunda, aktore gazte honek antzerki musikaleko obretan parte hartu izan du, esaterako, Souvenir, La peor cantante de la historia, Cabaret Chihuahua edo William Shakespearearen Zuek nahi bezala izenekoan, Madrilgo Eskola Dramatiko Nazonalean (CDN). Arriagan, zarzuela abestu izan du (El dúo de la Africana), baita haurrentzako antzerkia egin ere (Antartikako lorea). Dramaturgo- eta zuzendari-lanetan, La gran misión de HZ3 eta Viaje por la mitología vasca eskaini izan ditu hainbat ikastetxetan.

ISTORIA OSORIK IRAKURTZEKO...



XI. ABAO TXIKI denboraldia. 2016ko martxoaren 12, 13 eta 14an



RUBÉN FERNÁNDEZ-AGUIRRE MUSIKA-ZUZENDARIA ETA PIANO-JOLEA

Barakaldon jaioa, Carlos Álvarez, Ainhoa Arteta, María Bayo, Mariola Cantarero, Ismael Jordi, Carmen Romeuren eta abarren ohiko pianista da. Era berean, kolaborazioak egiten ditu Celso Albelo, María José Montiel, Simón Orfila, Isabel Rey, Carmen Solís eta José Manuel Zapatarekin, besteak beste, eta horiekin batera aritzen da Espainiako Jaialdi eta Antzokietan eta nazioarteko agertokietan. Akonpainamendua egin ohi du ikastaro eta Eskola Magistraletan eta pianista ofiziala izan da Plácido Domingok presiditutako “Operalia 2006” Lehiaketan, hala nola Maisu Korrepetidorea Valentziako Palaun, Teatro Realen eta Teatro de la Maestranzan. Ahots-errepertorio irakaslea da udako ikastaro ugaritan eta epaimahaikide hainbat lehiaketatan. Diskografia zabala dauka eta 2010ean Opera Actual saria jaso zuen.

ESZENOGRAFIA ETA JANTZIAK

Eszenografiaz **Gorka Mínguez** arduratu da. Trebetasun anitzeko artista honen proposamen eszenikoa hainbat agertoki alderantzikagarri osatuta dagoenez, Txanozuritzuren etxea, amonarena edo udaltzainaren polizia-etxea ikus ditzakegu, baita protagonistaren herriko kaleak ere. Aldaketa eszenografikoak arin eta erraz egiten dira, eta agertokiak ezin hobeto egokitzen zaizkio edozein antzokiri.

“Haurrentzako kubozko puzzlea balitz bezala, Txanozuritxu obrako eszenografia agertokiz agertoki bilakatzen da kubo bakoitzaren sei aldeek ahalbidetzen dizkiguten aukera ugarietarako: lehen hezkuntzako ikasgela zaharra, idazmahai eta guzti; institutuko egungo ikasgela; Txanozuritxuren etxeoko logela, komuna eta sukaldea; amonatzaren etxea; poliziaren bulegoa; hiria eta bertako kaleak...”

GORKA MÍNGUEZ ESZENOGRAFIA, ATTREZZOA, ARGIZTAPENA

Aktorea eta ekoizlea, 2006 eta 2014 artean ondoko obren eszenografiaz arduratu zen: Picasso 1937, Gernikaren historia (eszenografia onenaren saria 2006an Midlandeko Aact Internacional Theatrefest izenekoan), Magia teilatuetan, Cocidito madrileño, Antartikako lorea, Larria, Kutsakorra eta mendebaldekoa, Ttiki ttaka irratia, La última oportunidad edo El principio de Arquímedes, besteak beste, ondoko konpainientzat lan eginda: Txalo, Glu-glu, Erre Produzkiek, Tartean edo Maskarada.

IDIOA MERODIO FIGURINGILEA

Idoia Merodio aktoreak ibilbide luzea egin du hainbat diziplina artistikotan. Erresuma Batuko Royal Society of Arts delakoan Ahots Teknikan diplomatua, Ahots Eszeniko eskolak ematen ditu EHuko Eszenografia eta Arte Dramatiko ikasketen graduondokoan, Arte Ederraren Fakultatean. Aktore-lanak egin izan ditu, besteren artean, Cámara café (Tele5), Euskolegas (ETB2), Esto no es serio (ETB2), Vaya semana (ETB2) eta Goenkale (ETB1) telesaietan. Antzerkian ere eskarmentu handia dauka, taula gainean zein zuzendaritza-lanetan, eta, besteak beste, nabarmentzekoa da Andrés Limaren (Teatro Animalario) ondoan eginiko zuzendaritza-laguntzaile lana. Figuringile-lanetan, Zapatitos de Charol du marka artistikoa.

Estilismoaz, berriz, **Idoia Merodio** arduratu da. Operari egokituriko jantziak diseinatu ditu, abeslariak eroso eta gustura egon daitezen beren jantziekin. Eszenografia zein jantziak eskutik joango dira opera honetan, eta ukitu gorri eta ipuinen berezko ezaugarri ugari izango ditu, kontatzen den istorioari batasuna emateko.

“Pertsonaia bakoitzak bere kolorea dauka. Txanozuritxu... zuria da? Bai!... eta ez... Amonari, operaren Divari, urre-kolorea eta berdea dagozkio. Urdina, berriz, irakaslearena da... Bikiak arrosak dira... Bolumenak, orrazkerak, xehetasunak... Proposamen honetan, detaile txiki oro arretaz zainduta dago; izan ere, puntadak, guzti-guztiak, bihotzez eman dira”





Ehiztaria José Manuel Díaz

Barítonoa

Bilboko baritonoak hiri horretako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan ikasi zuen, notarik gorenak eskuratuta. Finalista eta sariduna izan da nazioarteko hainbat lehiaketatan.

ABAO-OLBEn: Roberto Devereux eta Faust (1998), Rigoletto eta Les Huguenots (1999), Der Rosenkavalier eta La Traviata (2000), Idomeneo, Der Freischütz eta Lucrezia Borgia (2001), I Vespri Siciliani, Turandot eta Werther (2002), Zigor (2003), Lohengrin (Noble) 2004, Salome (Segundo Soldado) eta Andrea Chenier (Smidt-Dumas-Mayordomo) 2005, Madama Butterfly (Comisario imperial) eta Tosca (Sciarrone) 2006, Ariadne auf Naxos (Ein Lakai) 2008, Tosca (Sciarrone) 2013, Madama Butterfly (Yamadori/Comisario imperial) 2015, La sonnambula (Alessio) 2016



Otsoa Mikeldi Atxalandabaso

Tenorra

Bilbon jaioa, zarzuela-abeslari onenaren saria jaso izan du “Manuel Ausensi” Lehiaketan eta Teatro Campoamor Sari Lirikoetan.

ABAO-OLBEn: Der Rosenkavalier (Ilekaioa, zerbitzaria eta Faninal etxezaina) 2000an, Salomé (Nazareno) 2005ean, Tosca (Spoletta) 2006an, Elektra (Ein Junger Diener) 2007an, Turandot (Pong) eta Ariadne auf Naxos (Brighella) 2008an, Falstaff (Bardolfo) 2010ean, Eugene Onegin (Triquet) 2011n, L’Elisir D’amore (Nemorino) 2012an, Madama Butterfly (Goro) 2015ean.



Amama Itxaro Mentxaka

Mezzosopranoa

Lekeition jaio zen. Sari garrantzitsuak jaso izan ditu eta, besteak beste, Bartzelonako Liceu eta Madrilgo Teatro Real entzutetsuetan abestu izan du. ABAO-OLBEn: Manon Lescaut (1986), La sonnambula (1990), Die Zauberflöte (Dama) 1998an, Salome (Herodiasen pajea) 2005ean, La traviata (Flora) 2005ean, Les contes d’Hoffmann (Voix de la Mère D’Antonia) 2006an, Roméo et Juliette (Gertrude) 2011n, La traviata (Flora) 2012an, Carmen (Mercedes) 2014an, La sonnambula (Teresa) 2016an.

Fitxa Artistikoa

Txanozuritxu
Otsoa
Amama/Ama
Ehiztaria
Andereñoa
Pelotari
Aroa
Naroa
Ikasleak

Marta Ubieta
Mikeldi Atxalandabaso
Itxaro Mentxaka
José Manuel Díaz
Marifé Nogales
Gexan Etxabe
Olatz Saitua
Itziar de Unda
Gaudeamus Korala

Musikariak: pianoa, biolina, klarinetea, txeloa eta perkusioa

Konpositorea eta kanta-idazlea
Musika-zuzendaritza eta piano-jolea

Carlos Imaz Cuenca
Rubén Fernández Aguirre

Dramaturgia eta eszena-zuzendaritza
Eszenografia, attrezzoak eta argiztapena
Jantziak

Mitxel Santamarina
Gorka Mínguez
Idoia Merodio

Txanozuritxu Marta Ubieta



Sopranoa

Soprano bilbotarra hainbat lehiaketatan izan da sariduna, eta La Caixa Fundazioaren eta Gran Teatro del Liceuren bekak jaso izan ditu. Ohikotasunez hartzen du parte herrialdeko opera denboraldi eta jaialdi garrantzitsuetan.

ABAO-OLBEn: Lucia di Lammermoor (Alisa) 2001ean, Norma (Clotilde) 2003an, Zigor (Otxandeta) 2003an, Jenufa (Jano) 2003an, Nabucco (2004), Salome (Esklaboa) 2005ean, La traviata (Annina) 2005ean, Rusalka (Iehenengo Ninfa) 2005ean, Manon (Pouset te) 2006an, Tannhäuser (Ein junger Herr) 2007an, Die Zauberflöte (Papagena) 2007an, Aida (Suma Sacerdotessa) 2008an, Ariadne auf Naxos (Echo) 2008an, Die tote Stadt (Juliette) 2012an, Adriana Lecouvreur (Mlle. Jovenot) 2014an, Madama Butterfly (Kate Pinkerton) 2015ean.



Anderenaia Marifé Nogales

Mezzosopranoa
Andoainen jaioa, Musikenen egin zituen kantu-
ikasketak. Jaialdi entzutetsuetan abestu du eta
musika- nahiz eszena-zuzendari garrantzitsuen
aginduetara egin du lan. Operetan, zarzueletan
eta kontzertuetan abesten du. Bere hurrengo
konpromisoen artean nabarmentzen dira La Traviata,
Teatro Realen; Carmen, Zarzuelaren Antzokian; eta
Manon Lescaut eta Il Barbiere di Siviglia, OLBERen
denboraldi honetan.
ABAO-OLBEn: Giulio Cesare in Egitto (Nireno) 2009, Le
Nozze di Figaro (Cherubino) 2010, L'Italiana in Algeri
(Zulma) 2011, La forza del destino (Curra) 2013.



Pelotari Gexan Etxabe

Baritonoa
Kantu-ikasketak Bilboko Udal Musika Eskolan eta Juan
Crisostomo de Arriaga Kontserbatorioan egin zituen. Estatuko
antzoki garrantzitsuetan abestu izan du.
ABAO-OLBEn: Billy Budd (sailor) 2009, Macbeth (servo) 2010,
Tristan und Isolde (timonel) 2012, Roberto Devereux (Un
paggio / Un familiare di Nottingham) 2015, Manon Lescaut
(Comandante/Parruchiere) 2016

Aroa eta Naroa Olatz Saitua



Gaudemus Korala

Itziar de Unda



Olatz Saitua. Sopranoa
Bilbon jaioa, bertan egin zituen gitarra- eta kantu-ikasketak.
Irakaslea da Musikenen eta Bilboko Kontserbatorioan.
Estatuko eta Europako opera-antzoki garrantzitsuenetan
aritu izan da.
ABAO-OLBEn: Tannhäuser 1999, Ariadne auf Naxos 1999, La
cenerentola 2000

Itziar de Unda. Sopranoa
Bilbon jaioa, bertako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan
ikasi zuen. Arrakastaz aritzen da operetan zein errezitaletan.
ABAO-OLBEn: 2003tik kolaboratzen du. Bere azken lanen
arteak, ondokoak gogoratzen ditugu: Rigoletto (Paje) 2006,
Les Comtes De Hoffmann (Stella) 2006, Die Zauberflöte
(Papagena) 2007, La Bella dormiente nel Bosco 2007, Manon
(Sirvienta) 2006, I Due Foscari (Pisana) 2008. Le Nozze di
Figaro (Barbarina) 2010. Don Carlo (Tebaldo) 2011, L'Elisir
d'Amore (Gianetta) 2012

Kissar Ensemble

Orkestra berri hau Asier Eguskiza musikari eta orkestrako
concertinoak sortu du Bilbon, batik bat kalitate musikalak
bereiziko duen taldea eskaintzeko eta eraikitzeko. Orkestra
Euskal Herriko eta penintsulako hainbat tokitako eta
Europako beste hiri batzuetako musikariek osatzen dute;
horrek, jakina, nazioarteko izaera ematen dio taldeari



Gaudemus Korala 1994an sortu zen,
Gernika-Lumon, egun ere zuzendari
duen Julia Foruriaren zuzendaritzapean.
Abesbatzako berrogeita hamar haur eta
gazteek XX. eta XXI. mendeetako hainbat
estilo z osaturiko errepertorio zabala
abesten dute. Talde aitzindaria da estatu-
mailan, obrak koreografie z hornitzeari
eta oholtzan performanceak eskaintzeari
dagokienez. Sari eta aitorten ugari jaso
izan ditu Euskadin zein nazio-mailan eta
nazioartean.

Egundoko ESTREINALDIA BILBON

ARRIAGA ANTZOKIA

2016ko martxoaren 12. 13 eta 14an

FAMILIARTEKO SAIOAK

Martxoak 12: 18:00

Martxoak 13: 12:00 eta 18:00

ESKOLA-SAIOA

Martxoak 14: 10:15 eta 11:45



SARREREN EROSKETA



DESKONTUAK, PROMOZIOAK ETA PREZIO
BEREZIAK

T. 944 355 100



ABAO-OLBE

José María Olabarri, 2 y 4.
48001 Bilbao. Bizkaia
Tel. 944 355 100
abao@abao.org
www.abao.org